

## **IRAKURTZERA ANIMATUZ**

# **Eusko Jaurlaritzaren 'Irakurri 2007' kanpainaren baitan, Zarauzko eta Zumaiako liburutegietan Liburutegiaren Eguna ospatu zuten atzo**

### **Aritz Mutiozabal**

Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat Udal liburutegitan Liburutegiaren Eguna ospatu zuten atzo. Eskualdean, Zumaiakoan eta Zarauzkoa Sanz Enean bakarrik antolatu zituzten ekimenak egun horretarako. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolaturiko Irakurri 2007 kanpainaren baitan, liburutegiko zerbitzuak erabiltzera hurbildu ziren herritarrei opariak eman zizkieten aipatutako bi liburutegietan.

Gerturatu ziren hurrei koloretako margoak eman zizkieten. Helduei, berriz, boligrafoak eta oharrak hartzen atzean iman harria duten koadernotxo itsaskorrak. Opari horiek liburutegira joan ziren guztiek jaso zituzten, baita Liburu bat, adiskide bat ekimenean parte hartu zutenek ere. Azken honen helburua lagunen bat edo senideren bat liburutegira ekartzea da, eta bertan topatu ditzaken aukerak zeintzuk diren ezagutaraztea: besteak beste, liburuak mailegutzan hartzea, hemeroteka nahiz internet zerbitzuak erabiltzea eta ipuin kontalarrien emanaldiak.

Era berean, Familiak ere kontatzen du. Etxean irakurtzeko gogoia pizteko 12 urrats izeneko gida banatu zitzaizen 3 eta 6 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei. Etxeko girotik hasita, haurrak liburuetara, irakurketara eta liburutegira hurbiltzea da gida horren funtzio nagusia. Dozena bat atalez osatuta dago liburuxka, eta bertan seme-alabei irakurtzeko zaletasuna sustatzeko gomendioak ematen zaizkie gurasoei. Liburutegietan ez ezik, ikastetxeetan ere banatzeko asmoa du Jaurlaritzak.

Gaztetxoen artean, berriz, Liburua ageri duen erretratua argazki lehiaketa jarri du abian Irakurri 2007 kanpainak. Ekimena 12 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago eta oinarriak liburutegietan daude.